EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO OPORRETAKO GOBERNU-SALAK 2024KO ABUZTUAREN 7AN HARTUTAKO ERABAKIA

BERTARATUAK:

JARDUNEKO PRESIDENTE GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR and.

ONDOKO JAUN-ANDREAK
LUIS ANGEL GARRIDO BENGOECHEA jn.
NEKANE BOLADO ZARRAGA and.

GOBERNUKO IDAZKARI
JUANA MARÍA AGUIRRE ELSO and.

ERABAKIA:

<u>Ordezko magistratuei eta ordezko epaileei buruzkoa</u>

BAKARRA. - 2059/2024 ZK.KO GORA JOTZEKO ERREKURTSOA

Oporretako Gobernu Salari 28/2024 zk.ko gobernu-espedientean egindako jarduketen berri eman zaio. Espediente hori 2059/2024 zenbakiarekin erregistratutako idazki baten bidez hasi zen, eta 2024ko uztailaren 29an igorri zuen Saioa Irigaray del Molino andreak gora jotzeko errekurtsoa jartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren Batzordeak 2024ko ekainaren 21ean hartutako erabakiaren aurka. Honela dio hitzez hitz:

"*2.9.-PRESIDENTEAREN 2024KO EKAINAREN 11KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PRESAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, AMAIA AZCARATE LERGA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA*
Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko ekainaren 11n hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7. artikuluarekin bat hartutakoa, presazko arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:
"Donostiako epaile-magistratu dekanoak AMAIA AZCARATE LERGA ordezko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.
Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluak presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Donostiako epaile-magistratu dekanoak egindako deia berrestea erabaki da AMAIA AZCARATE LERGAk udalerri horretako Zigor-arloko 3 zk.ko Epaitegian ordezko epaile gisa jardun dezan, titularraren XXX dela-eta, 24/06/11tik 24/06/14ra arte.
Deia berretsi da Gobernu Sala honek 2023ko urriaren 23ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera joteko arrazoiein artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta. Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekano jaunari, 30 egunez iragarki-taulan argitara dadin.
Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran".
Auzitegietako Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 14.1 artikuluak ezartzen duenaren arabera, osoko bilkuran edo batzordean eratutako Gobernu-salen egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, eta hala badagokio, berrikuspen-errekurtsoa, Administrazio Publikoen prozedura administratibo erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik. Beste aldetik, 39/2015 Lege beraren 122.1 artikuluaren arabera, gora jotzeko errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, egintza esanbidezkoa bada".

Oporretako Gobernu Salak aho batez erabaki du Auzitegi Nagusiko jarduneko presidente andreak egindako txostenarekin bat etorriz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari jarritako errekurtsoa eta erantsitako dokumentazioa bidaltzea, Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren Batzordeak 2024ko ekainaren 21ean egindako bileran erabakitakoa erabat berretsiz.

ERABAKIAREN JAKINARAZPENA.

Salak aho batez erabaki du interesdun guztiei jakinaraztea bilera honetan hartutako erabakia.

Beste aztergairik egon ez denez, amaitutzat eman da bilera, eta akta hau egin da, presidente andreak sinatuta. Fede ematen dut.